

BILKURA IREKIA

2002-VI-29

Durangoko Tabirako elizan, 2002ko ekainaren 29an, Pablo Pedro Astarloaren jaiotzaren 250. urteurrena ospatuz, egin du Euskaltzaindiak bilkura irekia.

Bilduak: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Henrike Knörr, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Antonio Arana Martija, diruzaina; Beñat Oihartzabal, *Iker* sailburua; Patxi Altuna, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Emile Larre, Jose Mari Satrustegi eta Antonio Zavala, euskaltzainak; Karmelo Exenagusia, euskaltzain ohorezkoa; eta Ricardo Badiola, Gaizka Barandiaran, Jose Luis Lizundia eta Patxi Uribarren, euskaltzain urgazleak.

Mahaiburuan eseri dira: Pilar Ardanza, alkatea; Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Anton Mari Aldekoa-Otalora, Gerediaga Elkarteko lehendakaria; Itziar Laka eta Rikardo Gomez, txostengileak. Moderatzaile lana Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak egin du.

Gonbidatuen artean, Durangoko Udaleko zenbait zinegotziz gain, Iñigo Lasuen, Otxandioko alkatea, eta Jose Loizate, Garaiko alkatea. Orobat, Durangoko Santa Ana-ko eta Uribarriko Andre Maria, Otxandio eta Iurretako parrokoak izan dira. Baita herritar andana bat ere.

Pilar Ardanza Durangoko alkateak egin du ongietorria, adieraziz, Durangoko uria-
rentzat ohore handia dela Euskaltzaindia Durangora etortzea, Pablo Pedro Astarloaren 250. urteurrena bertan, handikiro, ospatuz.

Jarraian, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, bere agurra egin du adieraziz nola Euskaltzaindia, Euskal Herriko herrialde guztietara joaten den, euskaltzale, euskal idazle eta euskalarien mendeurren eta omenetan.

Ondoren, Anton Maria Aldekoa-Otalora, Gerediaga Elkarteko lehendakariaren agurra. XVIII. mendearen bukaeran, euskal foruei –eta oro har euskarari– buruz egin-dakoaren aurka egiteko, Astarloak idatzi zuen *Apología de la lengua bascongada*. Horren balioa azpimarratu du.

Itziar Laka, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak: «Astarloa eta hizkuntza» gaia jorratu du. Bereziki, durangarraren alderdi gutxi ezagunak azpimarratu ditu, hots, hizkuntzalaritzakoa ez horrenbeste, euskararekikoa, horretan bakarrik finkatu baitzuten Resurreccion Maria Azkue gazteak eta Sabino Aranak beraien Astarlorekiko miresmena hizkuntzaren balio. Hizkuntzalaritza ikuspegitik, izaki guztiek duten hitz egiteko eta hizkuntzarekiko ahalbidea, nabarmendu du txostengileak.

Rikardo Gomez, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslearen txostena: «Astarloaren ekarpena euskal gramatikaren ikerketetan» gaiaz mintzatu da. Morfema bakoitzari Astarloak ematen zion balioa eta esanahia puntuz puntu zehaztu du.

Azkenik, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak burutu du ekitaldi akademikoa. Eskerrak eman dizkie Gerediaga Elkarteari, Durangoko Udalari eta Euskaltzaindiari, honelako ekitaldi bat gauzatzeagatik eta Itziar Laka eta Rikardo Gomez ikerleei gaur bezalako emaitzak agertzeko parada eskaintzeagatik.